

SANJOAN JAIK

Ekainak 23 eta 24



FIESTAS DE SANJUANES

23 y 24 de Junio

PASAI DONIBANE, 1987

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL

SANJOAN JAIK

Ekainak 23 eta 24

PASAI DONIBANE 1987

EKAINAK 23, ASTEARTEA

Eguerdia.—Haurren Marrazki-lehiaketa Santiago plazan.

17,00ak.—Buruhandiek, txistulariekin batera, herriko txokoak alaituko dituzte neska-mutikoei segika.

17,30ak.—Haurrentzat jokoak eta askeriak banatzea Santiago plazan.

21,30ak.—Parrokian SALVE solemnea.

22,30ak.—Sanjoan sua piztu eta Zuhaitzaren aurrean Aurreakua.

23,00ak.—Dantzaldia goizeko 3ak arte TXASTON taldearekin.

EKAINAK 24, ASTEAZKENA — SAN JOAN BATAIATZAILEA

7,00ak.—DIANA txistulariekin.

8,30ak.—Sokamuturra.

11,00ak.—HERRI-MEZA.

12,30ak.—Haurrentzat Danborrada. Antolatzailea ITSAS MENDI Elkartea.

16,30ak.—UXO-TIRAKETA HANDIA La Planako terrenotan. Antolatzailea USOA Elkartea.

17,30ak.—EUSKAL DANTZAK. ITSAS MENDIko Dantza-taldearen eskutik.

19,00ak.—Binakako Pilota partidua, herriko afizionatu ezagunek parte hartuko dutelarik.

23,00ak.—DANTZALDIA goizeko 3,00ak arte TRAKETS musika-taldearen eskutik.

FIESTAS DE SAN JUANES

23 y 24 de Junio

PASAI DONIBANE 1987

JUNIO 23, MARTES

A las 12,00.—Concurso de Dibujo Infantil en la plaza de Santiago.

A las 17,00.—Los Cabezudos, acompañados de los txistularis, harán corretear a los niños y niñas por las calles del Txoko.

A las 17,30.—Juegos Infantiles y reparto de meriendas en la plaza de Santiago.

A las 21,30.—Solemne SALVE en la Parroquia.

A las 22,30.—Encendida de la Hoguera y Aurreku al Arbol de San Juan.

A las 23,00.—Bailables hasta las 3,00 a cargo del conjunto de música TXASTON.

JUNIO 24, MIÉRCOLES — DÍA DE SAN JUAN BAUTISTA

A las 7,00.—DIANA por los Txistularis.

A las 8,30.—Sokamuturra.

A las 11,00.—HERRI-MEZA.

A las 12,30.—Tamborrada infantil, organizada por la Sociedad ITSAS MENDI.

A las 16,30.—Gran Tirada de pichón en los terrenos de la Plana. Organiza la Sociedad USOA.

A las 17,30.—Bailes Vascos con la participación del grupo de danzas ITSAS MENDI.

A las 19,30.—Partido de pelota, por parejas, con la participación de afamados aficionados de la localidad.

A las 23,00.—Bailables hasta las 3,00 a cargo del conjunto músico TRAKETS.

JUANA BIXENTA OLABE
BILINTX

1

J. Bixenta:

Nagusí jauna, auxen da lana,
amak bigaltzen nau berorregana.
N. jauna:
Ai, bigalduko bazinduke maiz!
Zu ikusita konsolatzen naiz.
Xinista zazu:
oso zoraturikan nakazu!
Orren polita nola zera zu?

2

J. Bixenta:

Amak esan dit, etxeko errenta
pagatzeko dirurik ez zuben-la,
ia egingo diyon mesere,
illabetian geienaz ere,
itxogotia; (*sic*)
bara zierto dala ematia
pasa bano len illabetia.

3

N. jauna:

Lograutzia, errex alare,
naiz ori ta beste zernai gauza're,
seguru dala esan amari,
zu baldin bazatoz mandatarí;
dudarik gabe,
nere borondatiaren jabe
zu zera, Juana Bixenta Olabe.

4

J. Bixenta:

Beraz bertatik nua etxera
poz aundi bat amari ematera;
orain ariyo, nagusi jauna,
presaka juan biat amagana.
N. jauna:

Ez zuazela;
portatu zaitte nik nai bezela,
gaur etxera juan ez zaitzelaz.

5

Zuben etxia dago irruki,
birian zer gerta izan bildurti;
bara iya pasa da eguna,
arratsa berriz dator illuna;
orain juatia
txartzat iruki, nere maitia;
gaur emen bertan gera zaitia.

6

Ez juan etxera, bire oietan,
gabaz, bakarrik eta illunbetan;
kontura erori zaitia zu:
gabaz illunbian juan biazu
peligro audiz,
eta obe dezu eun aldiz
biyar goizian juan egun argiz.

7

J. Bixenta:

Ezetz etsiia egon liteke,
ni emen gelditu eziñ niteke;
amak espero nau gaberako,
eta ark espero naubelako,
juan biar det nik;
alaba ikusi bagetanik
amak izango ez luke onik.

8

N. jauna:

Emen zuretat dira parako
jaki txit goxuak afaitarako;
erariya berriz, —Jaungoiku!—,
iliak piztuzeko modukua;
ardo onduba,
ontzen urtietan egonduba,
Malaga'tikan da bigalduba.

9

J. Bixenta:

Jauna, bororrek, bañan alferrik,
badaki amaitzen lazo ederrik;
lazua eiz bage gera dedin,
nere etxian nai ditut egin
afaldu ta lo;
naiago ditut ango bi tala,
ta ez emengo mulla erregalo.

10

N. jauna:

Biyotz nerzko dama polita,
asmoz muda zaitte, auxen tori-ta;
amasei duroko urre fiña,
sendatu nai zazu nere miña.
J. Bixenta:

Ez, jauna, ez, ez!
Merezi beziñ kopeta beltzez,
esango diyot ezetz ta ezetz!

11

N. jauna:

Gañera berriz, Juana Bixenta,
utziko dizutet etxeko errenta;
kito zor dirazuten guziya,
kuplitzien banazu kuliziya.
J. Bixenta:
Lotsa gogorra!!
Sulritzen dago gaur nere onra,
penaz maikuak darizkit orrat!

12

N. jauna:

Nik dituk kulpak, ez egiñ negar,
orlakorik ez nizu esan biar;
animan sentitutzen det miña
zuri ofensa ori egiña.
Maldiziyua!
Ez dakit nun nekan juiziyua,
eskaten dizut barkaziyua!

13

J. Bixenta:

Barkaziyua, du-ta eskatu,
nere biyotz onak eziñ ukatu,
erakutsi ditalako, jauna,
gaitz egiñaren damutasuna,
konforme nago;
ez egin-ta ofensa geiago,
gaurkua oso atzutzat dago.

14

N. jauna:

Berriz nik egiñ zuri ofensa?
Arren orlakorik ez bara pensa!!
Zauzkekizit neskatxa fiñ batetzat,
eta gusto audiz ematzetzat
artuko zaitut;
biyotzetikan esaten dizut,
zuretat ona baderizkizut.

15

J. Bixenta:

Ori egiyaz baldin badiyo,
neregana egon liteke fiyo;
bañan usatubaz kortesiya,
ama nerari lizentziya
eska bezaio.
N. jauna:
Ori gustora egingo zaio,
biyar goizian juango naitzaio.

16

J. Bixenta:

Banua orain.
N. jauna:
Atoz onuntza,
birerako artu zazu laguntza.
Adi zazu, morroi Joze Juakin:
etxera farolan argiyakin
anguru oni
gaur zuk laguntzia da komeni,
kezketan egon ez nariyen ni.

17

Morroia:

Anguru ari lagundu eta
orra, jauna, egiñ osteria buelta;
birian, bai, bi-durixo zan bera,
bañan allegatu-ta etxera
kontentu zegoñ;
orain kezketan ez du zer egon,
oiera juan ta pasatu gau on.

18

Eidu zanian urungo goiza,
nagusiyak zuben kuplitti itza;
juan zitzaion amari etxera,
andretzat alaba eskatzera;
amak txit firme
artu ta gero mulla informe,
geiditu ziran biyak konforme.

19

Andik zortzi bat egunetara,
edo amar ziran ez dakit bara;
ez, amar eziñ zitezken izan,
andik zortzi egunera elizan
ezkundu ziran;
ezkundu ta etxera segiran,
jendia franko bazuten jiran.

20

Bost illabete edo sei ontan
ez dirade beti egundu lotan,
eman dute zenbait jirabira
eta gozatzuten bizl dira
ditxak ausarki;
obeto eziñ litezke arki,
espero dute aurtxo bat aurki.

21

Dama gaztiak, ez egon lotan,
begira zaitzete ispiilu ontan
gustatuta birtute ederra,
andretzat artu bere maitzerra
du nagusiak;
orla irabaztera graziyak
saia zaitzete beste guziyak.

Bilintx

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL